1994ko ekainak 10 / 67. zbk.

Astekaria

# BARREN elgoi



## Josu Mujika
## Koreografo eta dantzari





IRE
BIZIKLETAK
San Bartolome 4 atzekaidec:In
(Leku eder parkean) ☎ 74 43 77



# KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 74 02 36

GIPUZKOAKO HIZKUNTZ IRAKASIE EIXARTEKO BAZKIDE

## UZTAILEAN GOGOR EKIN INGLESA ETA FRANTZESARI

### Matrikulazio epea zabalik daukazu

## UDARA HONETAKO ZORAMENA!!

***MAILAK:***
1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua
Sarrerako azterketaren arabera.

***TALDEAK:***
- Minizamen praktikak
- Kanpo komertzioa
- Itzulpena (bi hizkuntzetara) Literatura,
- Errekuperazioak,
- Oinarrizko mailak haurrentzat.

***IRAUPENA:***
A - Ordu bete egunero (22 ordu)
B - Bi ordu egunero (44 ordu)

***ADINA:*** Adin guztiak.



P. E.T. centre ES 406



# *INDARRAK ELKARTZEKO GARAIA DA*



*Andoni Ganboa* *Josu Jon Imaz* *Jo.0 Luis Etxegarai* *Juan Jos‘ Ibarretxe*

EMAN BOTUA EAJ PNV

COALICION NACIONALISTA

**elgoiBARREN**
Nafarroa enparantza 2
zr 74 41 12
ARGITARgrzAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Alberto Agirreazaldegi.
HIZKUNTzA ARDURADUNA:
Anjel Ugarteburu,
ERREDAKZIO KONTSEILUA:
lhaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbaa, Rosa lriondo, Jose Inazio Sarasua.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.
MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria,
Edu Sanz.
PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.
ADMINISTRAZIOA:
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.
KoLABoRATzAiLEAK:
Irati Agirreazaldegi, lizicrr Agirregomezkorta, Ano Aizpiri, Myriam Aldazobal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Ur-tzi Eixabe, Asier Exaniz, Sugar Exaniz, Fellx Erxeberria, Izaro Etxegibel, Enetz Ezenarro, Itziar Femandez, Jose Mari Galdos, lna Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Ationso GuillO, Maite Iriondo, Ekaitz Isosi, KOKOE, Enrike Larroñaga, Imand Larrañago, Horitz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihona Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, lgor Vazquez, Ano Vila, Miryam Viliasante, Alartz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA:
imanof Larraflaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubiliaga Oñati)
TIRADA: 3.300 ale
LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92
ISSN: 1133-02IX

**eigoiBARRENek ez du bere gain** hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## ZNBAT BURU

## HAINBAT ABURU



# Gezurra

Gezurra da gaur egun - eta aspalditik, zoritxarrez- gure kaleetan ikusten dugun gaitz epidernikoa.

Gezurretan ari dira umea Ikastolara bidali eta -euskaldunak izanik- elkarren artean gazteleraz mintzatzen diren gurasoak. Salegi-ko arratsaldeko kafean "Ez irten kalera, Ekaitz! ... f,quē te estaba diciendo?" dioena gezurretan ari da.

Gezurretan ari da iraultza politikoa gaztelera hutsez egin nahi duena. Gezurretan dihardute snobismoz erdaraz aritzen diren gaztetxoen koadrilak. Gezurra da Ikastolako irakasleak elkarren artean erdaraz ihardutea. Gezurra, erdaraz hitz egiten jakin gabe, badakigula etengabe erakusten saiatzea.

Gezurra diote erdaldun/euskaldun oposaketa garbi adierazi nahi, bai, baina praktikan erdaldunak baino erdaldunago direnek, lehen zortzi abizenak euskaldunak badituzte ere.

Gure agintariek, XVII-XVIII. mendeetako euskararen apologistek bezala, euskara gazteleraz goratzen dutenean gauzak ez doaz ondo.

Gezurrezkoak dira autopista irteeratako "Egiazta ezazu kanbioa", edota kutxazainetako "Sartu zenbaki pertsonalak"; Intsuldaketa (zer da hau? Dirudienez traspaso hitza adierazteko erabiltzen dute), supermerkatuetako erremolacha, Posta Kutxako "Posta Kutka" bezalako munstroak.

Era honetako ekintzekin arrazoia emango diegu euskararen etsaiei; hauek ongi esaten dute euskarak ez duela ezertarako balio, kultura eta goi-mailako kontuak ez beste erabileretarako (eremu afektiborako) bakarrik dela euskara; gehiegitan du euskarak balio sinbolikoa bakarrik; itxurakeriaren munduan bizi da nahi baino gehiagotan.

Euskarak duintasuna eta presentzia normala behar du; eta hau honela izan dadin lan egingo dute elgoiBARRENek, Elgoibarko izarrak, Udalak, AEKk eta HABEk eta abarrek... baina beste norbaitek ere egin beharko du -denetarik inportanteena berau-, gutariko bakoitzak, hain zuzen. Gutariko bakoitzaren baitan bizi baita euskara, gutariko bakoitzak manten baitezake bizirik euskararen arnasa, gutariko bakoitzak eman baitiezaioke euskarari bizitzeko behar duen duintasuna eta erabilera, ez erakundeek nahiz elkarteek.

Jesus Mari Makazaga

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta ' Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

## ?¡1111111

**Noiz arte mantendu behar dute ostegunetako merkatua Plaza Handian?**
Ongizate Saileko teknikariekin egon gara eta momentuz Plaza Haundian segituko duela esan digute. Saltzaileaak, erosleak eta Udaltazingoa oso pozik omen daude leku berriarekin eta bertan mantentzea erabaki da.

## KEXAK

Herriko Antzokiko inaugurazio egunean euskarak izan zuen tratamendu eskasagatik pertsona batek bere kexa azaltzeko eskatu digu. Berak esan digunez, apaizak azalpen guztiak erdaraz egin zituen, errezuak euskaraz izan baziren ere. Kultura Batzordeko Presidenteak ere, haserako bizpahiru hitz izan ezik, gainontzeko azalpen guztiak erdara hutsez egin zituen.

## TXALOAK

Elgoibarren paper kontenedoreak ipini dituztelako poztu den irakurle batek deitu digu. Ipini dituztenak txalotu nahi ditu erabaki zuzena iruditzen baitzaio.

# ESKUTITZAK

## Autodefentsa ikastaroa

Emakumeok ohituak gaude erasotuak izaten, jendea gurekin sartzen, zapladatxoak hartzen. Eguneroko gauzak direnez, gure parte bat izatera iristen dira, zalantzan jarri gabe barneratzen ditugunak edo ezertarako balio ez dugula onartzen dugu. Ez dugu geure burua eraso bati aurre egiten ikusten!

Horretaz ari gara. Autodefentsa, erasoen aurka borrokatzeko eta isiltasunetik ateratzeko modu bat izan daiteke.

Ikastaro honetan gai ezberdinak ikutzen uzten digute: kaleko erasoak, etxekoak, lanekoak, kuadrilakoak... Erasoen eta egoeren zergatiak. Eta, baita ere, ezintasun eta segurtasun eza alde batera uzten lagunduko digu.

Ikastaroa hurrengo asteburuan izango da, ekainaren 18an eta I9an, Institutoko gimnasioan. Hemendik emakume gazte guztiok animatzen zaituzlegu parte hartzera.

Izena emateko, hilak 14an hasi, asteartea, eta 17a bitartean, ostirala, ondoko telefono honetara dei dezakezue: 75 51 01 (goizez 9etatik 12etara, arratsaldez 3etatik 7etara).

**ANDRAIZE emakume taldea**

**ZUZENDARITZAREN OHARRA:**

Azken boladan izen-abizenik gabeko eskutitzak jaso ditugu. **BARRENen** argitaratu nahi diren gutunek **izen-abizenak, N.A.N.a eta telefono zenbakia behar dute izan.** Argitaratzerako orduan inizialak **soilik ager daitezke** igorleak hala eskatuko balu. Eskuti-tzak bidali dituzuenok deitu mesedez BARRENera falta zaizkizuen datuak emateko.

## HARRIGORRIGOIKOERROTAKERRITARRAK





111

N

fyi ste honetako erretratua **Ramon Maiztegik** lagatakoa da. 1962ko maiatzaren 31an ateratakoa. Ramonek esan digunez, "Etxegiña"ri egin zioten omenaldikoa da. Omenaldia garai hartan Elgoibarren zeuden soziedade guztiek egin omen zioten. Erretratuan azaltzen direnak soziedadeetako ordezkariak dira.

Tente, ezkerretik hasita: **Agustin Arriola "Ospas", Mikel Gorostiza, Jesus Unzilla, Alberto Ezenarro (t), Jesus Mari Etxeberria, fñaki Gorostiza, Rafael Rodriguez, Julio Uria, Santiago Kortaberria** (it) eta **Ramon Maiztegi.**

Eserita: **Angel Aranberri (t), Urbano Arriaga (t), German Uriguen "Etxegiña", Fulgencio Barrutia** (t) eta **Luziano Riaño (t).**




rimEORKIZUNA

hJDARRA oo#



## *Petra, Elgoibarres, Capitol* **eta** *Odeon*

# Herriko Antzokiaren aintzblda,rlak

**Erabat itxuraberrituta, zinerik modernoenen Dolby estereo soinua altabozetatik eta jarlekuak eta lurra gorriz tapizatuta irekiko ditu ateak astebukaera honetan Herriko Antzokiak. Gaur egun herrian daukagun zinema bakarra da. Ongarriren aire libreko eta Udaletxeko aretoko zinea ezezik, Elgoibarrek lau zinema eduki izan ditu. Lau hauei gainera, garai bateko parrokiako edo katekesis-eko zinea gehitu behar zaie. Elgoibarko zinemaren historia egin nahian, Ongarriko kide den eta herriko lau zinemetan urte mordoa operatzaile lanean eman duen Andres Odriozolak hainbat kontu eta anekdota kontatu dizkigu.**



■ Andres Odriozola, Elgoibarrek izan dituen lau zineetako operadotzailea izan da urteetan zehar.

Tornatore-ren "Cinema Paradiso"ko protagonistaren antzera, bizitza eman du zineagatik. 68 urteko gizon honek bihotz bihotzetik sentitzen du zinema eta ziurrenik, pelikula gehien ikusitako elgoibartarra izango da.

"Cine de la Petra", "Cine elgoibarres" edo "Cine viejo", "Capitol", "Ode6n", aire libreko zinea, Udaletxeko zinea eta, azkenik, "Herriko Antzokia". 25 urtetik gorako eta zinera inoiz joan izan den edozein elgoibartarrek gogoratuko du Errosario kaleko zine zaharrean ikusitako bakeroen pelikularen bat, Capitol edo Odeon zinean ikusitako superprodukzioren baten titulua edota ez oso aspaldian Herriko Antzokian ikusitako azken pelikula. Zinea, eta horretaz dudarik ez dago, aisialdiaren kulturaren oinarrizko zutabe izan da. Futbolak eta zineak, besterik agertu arte, elgoibartarren bizitza kulturalean funtsezko papera bete zuten.

### Zine mutua: "Cine de la Petra"

Errosario kaleko 25ean, pentsuak zeuden lokal baten egon zen lehen zinea Elgoibarren. "Zine de la Petra" izenez zen ezaguna. Andres Odriozolak kalitate handirik ez zuen eskuzko proiektore batez emandako zinea zela gogoratzen du eta zine mutua zen. Zinearen hastapen garaiak ziren. Beranduago, ahotsa zinean sartu zenean, kupidarik gabeko zentsura jasaten zutela pelikulek azaltzen du Andresek: "Banda borratu egiten zuten eta `beraiek' nahi zutena jarri. Musika Iaga egiten zuten eta sexuari dagokionean, bat ere ez; mutilatu egiten zituzten".

### Usabiaga, zinema gizona

Gerra ostean Antonio Usabiagak "Cine elgoibarres" ireki zuen "Petra"ren alboko lokalean. "Petra" itxita, Andres Odriozolak "elgoibarres" zineman jarraitu zuen operatzaile lanetan. "Cine viejo" deitzen zioten, egurrezko lokal zahar eta hautsez betetakoa baitzen.

Garai hartan jende mordoa joaten zen zinera, kolak amaitezinak zirela gogoratzen du Andresek, "inoiz munizipalek etorri behar izan zuten ordena jartzera".




• EI Odeoia, herrian izan den zinerik dotoreena.

## CAPITOL zinema

"Elgoibarres" zinearen arrakasta ikusita, Usabiagak "Capitol" zinema ireki zuen. Urte batzuetan, nelgoibarres" itxi cturretik, bi zineek, eta orduko Santolaya, Arrillagak eta Gallastegi pilotariak ireki zuten "Odeen" zinemak batera funtzionatzen zuten. Urte haietan, 60. hamarkadan, hiru zinema zeuden Elgoibarren, eta hiruak beti beteta.

"Capitol" zineman eta "elgoibarres" zineman pelikula bera ematen ziren, batean ordu erdi lehenago hasten zelarik emankizuna. Lehen bobina bukatzean mutiko batek bizikleta batean beste lokalera eramaten zuen zinta, eta bertakoa bestera. "Capitoi"ean arrakasta handia izan zuen "Ben-Hur" Filmeak. 12 egunez egon omen zen kartelean. Koloretako telebistak zinearen krisia eragin zuen. Krisiaren eta lokalean berrikuntza sakonak egin beharren aurrean "elgoibarres" zinea isteko erabakia hartu zuen Usabiagak 70. hamarkada inguruan.

"Capitol" eta "Odeon" zineek biek batera funtzionatu zuten urte mordo batean. Usabiaga hiltzean "Capitol"ak ez zuen asko iraun eta Udalak erosi zuen, beranduago "Herriko Anizokia" izenez ireki zutelarik. **80.** hamarkadan "Ode6n" zineman izugarri igartzen da zinearen krisia. Luis Santolayak, 1987. urtean zinea itxi eta lokala saldu egiten du, haren tokian eixebizitzak eraikitzeko.

Gaur egun, Ongarri Zine Klubekoen aire libreko zineaz eta Udaletxeko esperientziaz aparte, zinematoki bakarra dugu Elgoibarren: eraberritutako "Capitol" zahar hura da. Garai berri baten hasera. Batek daki.

Emanaldi mordoa egoten ziren: ostegunetan, pelikula "femeninoa". "Dia de bragas" edo emakumeak kalera irteten ziren eguna izanik, melodrama erromantikoak pantailaratzen ziren. Charles Boyer aktore frantsesaren garaia zen, "Casablanea" bezalako pelikulek arrakasta izan zuten garaia, alegia.

Larunbatetan hiru emankizun egoten ziren eta Altzola, Mendaro eta Debako jendea etortzen omen zen. Programa bikoitzak ere eskaintzen ziren, gaueko 10etan hasi eta atseden laburraren ondoren, 2ak edo 3ak aldera bukatzen zena. "Western"ak, abenturazkoak, akziozko pelikulak, belikoak eta zine beltza ematen ziren. Igandetan berriz, pelikula ezagunagoak eta sakonagoak izaten ziren. "Raices profundas", eta "Que verde era mi valle" garai hartako pelikula funtsezkoak izan ziren. Arrakasta handiko filmeak astelehen eta astearteetan ere ematen ziren. Emanaldi hauetaz gain, haurrentzako saioa ere egoten zen igande eta larunbatetan. Sei erreal kobratzen zitzaien haurrei sarrera.

### "Odedin"

Santa Ana kalean 1954. urtean ireki zuten "OdeOn" zinema. Santolaya, Arrillaga eta Gallastegi pilotari ezagunak ziren sozioak. Azken honek Eibarren "Arnaya" zinea ireki eta "Ode6n" elgoibartarren eskuetan geratu zen. Zineaz gain, teatroa ere bazen. Areto dotorea eta dudarik gabe Elgoibarrek izan duen zinerik onena, Andresen ustez. Konpainia oso onak ekartzen zituzten; Lina Morgan ezaguna ere bertan izan omen zen. Bailarako jendea autobusez etortzen zen Odeoiko ikuskizunak ikustera. Zine iparramerikarraren garaian, "Lo que el viento se llev6" eta beranduago, "TiburOn" eta "ET" bezalako superprodukzioak izan ziren Odeoiko pelikularik arrakastatsuenak.

Odeoikoek Andres Odriozola "fitxatu" zuten, "Petra"n, "elgoibarres"en eta "Capitol"ean izan ondoren. Profesional bezala estimazio handia izan zuen Andresek eta oraindik ere hala da, inork baino hobeto ezagutzen zituelako proiektoreak eta elektronikaren mundua. Gaur egun ere, inguruko zinematokietatik deitzen diote, besterik ez bada ere, proiektoreari begiratu bat egin diezaion.

**Hiru zinek batera jardun zuten herrian. Hiruak beti beteta.**



Herriko Antzokiaren inaugurazioa. M. Jesus Aranburu Kultura diputatua, apaiza bedeinkatzen, Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatea eta Guillermo Garate kultura zinegatzia.

# interesatzen al zaizkizu europear hauteskundeak?



## GASPAR SAN JUAN
**62 urte, jubilatua**

Noski baietz. Hauteskundeak oso inportanteak dira eta botua ematea beharrezkoa da. Nik botatu egin behar dut. Gainera, argi daukat nori.



## INES BENITEZ
**38 urte, etxekoandrea**

Politikoekin oso desengainatuta gaudela uste dut, ni neu ere bai. Hala ere, hauteskundeak beti dira garrantzitsuak eta botua eman behar da.



## M. CARMEN PEREZ
**34 urte, etxekoandrea**

Ez zaizkit interesatzen eta gero eta gutxiago. Herrikoak direnean zertxobait gehiago baina ez gehiegi. Ez dut uste botatzera joango naizenik.



## MERTXE ARTETXE
**43 urte, administraria**

Oso desanimatuta nago eta politikoekin inoiz baino ilusio gutxiagorekin. Gizabanakoari eman behar zaio garrantzia eta gizartearen baloreak indartu.



## IÑIGO LEGORBURU
**31 urte, mekanikoa**

Hauteskunde guztiak hezala interesgarriak dira. Arazo asko daude, eta Europan gaudenez, igual Europatik jaso leike laguntzarik. Botauko det.



## ANGEL AIZPITARTE
**59 urte, administraria**

Ez dit gehiegi axola. Normalean interesa edukitzen dut baina orain hor goian gertatzen ari denarekin... Ez naiz botatzera joango.


IRAKASLE ESKOLA

1 Magisterio Eskolak zera jakinarazten du:

1994-95 ikasturterako aurreinkripzio-epea zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Hezkuntza Musikala

informazioa
IRAKASLE ESKOLA. Tel: (943) 71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)



# Aitor Esnaola edozein unetan gartzelara dezakete

Apirilean epaitu zuten Aitor Esnaola intsumisoa, soldaduzka eta ordezko zerbitzu sozialari uko egiteagatik "busca y captura" egoeran dago. Horregatik edozein unetan gartzelaratu dezakete. Aitorrek ez zuen epaiketa eta tribunala errekonozitu eta filosofia horrekin jarraituz, ez du bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigor-epaia errekurritu. Este ban Gabiolak joan den astelehenean zeukan epaiketa baina suspenditu egin zuten. Orain, epaiketaren zain dago. Antonio Lozanoren kasuan fiskalak sententzia errekurritzea erabaki zuen eta Iban Esnaolak, ordea, berak epaia errekurritzea erabaki du. Lozanori hiru hilabeteko gartzela zigorra eskatu zioten eta Ibani zigor maximoa, bi urte lau hilabete eta egun bat.




HiI honen 20an Fernando Garate eta 21ean Luziano Arregi epaituko dituzte. Dagoeneko, zortzi dira epaitu dituzten edota epaituko dituztenak. Iaz Rafa Feijoo, eta aurten, Antonio Lozano, Aitor Esnaola, Iban Esnaola eta Esteban Gabiola epaitu dituzte. Alejo Rolo joan den apirilean epaitu behar zuten baina atzeratu egin zuten epaiketa. Datozen epaiketen aurrean, "Intsurnisoaren eguna" ospatuko da Arrasaten larunbat honetan, hilak 11. Bailarako Talde Antimilitarista guztiek eta tartean, Elgoibarkoak ere antolatuta, Arrasatera bizikleta martxa bat burutuko da larunbatean.

IMH
1ZKUNTZAK
IDIOMAS

## Uztaileko hizkuntz ikastaro intentsiboa



- **HIZKUNTZAK**
  Alemana, Ingelesa
- **MAILAK**
  Maila guztiak - Kurtso orokorrak
  - Ingeles komertziala / Idazkaritza
    Elkarrizketa saioak
  - First Certificate azterketarako prestakuntza
  - Teknikoa / Itzulpena

Iraupena: 40 ordu (2 ordu egunean), ekainaren 27tik uztailaren 23ra.
Ordutegia: goizez eta arratsaldez.
Irakaslegoa: bertakoa.
Ikaslegoa: 15 urtetik gorakoentzat.
Matrikula epea: ekainaren 24ra arte.

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA: IMH HIZKUNTZAK
San Roke Auzoa, 1. 20870 ELGOIRAR, Tel.: 74 41 32 Fax: 74 41 53

## • Karidadeko monjen omenezko bazkaria

Karidadearen lagundiko monjak Elgoibarrera etorri zirenetik 125 urte bete direnez, ospakizun berezi bat egingo da hil honen 26an. Urteurrena ospatzeko ikasle ohien batzordeak bazkari bat antolatu du eta izena emateko azken eguna hilaren 15a izango da, honoko toki hauetara jo beharko delarik eginkizun horretarako: Muruamendiaraz gozotegia, Lanas Conchi, Gorriti janaridenda, Muxi Kirolak eta Gloria Mugerzaren loradenda.

## ■ Itxaropena abesbatza

Itxaropena abesbatzak Donostiako Kontserbatorio Nagusiko kontrapunto, fuga eta konposizio ikasleek emango duten kurtso bukaerako kontzertuan parte hartuko du Donostiako Udaletxean larunbatean, hllak 11. Itxaropena abesbatzak okasiorako egindako J. Palacin eibartarraren "La irracional alegria" abestuko du estrainekoz. Kontzertuan entzun ahal izango diren obra guztiak konpositore gazteek egindako obren estreinaldiak dira.

## ■ Objezioa eztabaidagai

Elgoibarko EGIk objezioa eta intsumisioaren inguruko hitzaldia antolatu du datorren 22rako. Ekitaldia Kultur Etxean izango da arratsaldeko 7,30etan. Gaiari buruz hitz egiteko EGIko Gipuzkoako ordezkaria, Patxi Agirre izango da. Interesatuta dauden guztiak parte hartzera gonbidatuta daude.



**Morkaiko eta Eigoibarko Izarrak** antolatu zuten "Luna eta Hizkuntzarren eguna"k arrakasta izan zuen. 30 bat lagun izan ziren mendi buelta ematera animatu zirenak. Meza ostean, Finalista Eguneko domina banaketari eman zitzaion paso. Txistulari Udal Taldeak lagunduta, Haritz Dantza Taldekoek bazkal aurretik dantza egin zuten eta ostean, 85 lagun mahai baten bueltan bildu ziren, kanpoan 55 umek eta 10 begiralek bazkaria eta jolasak egiten zituzten bitartean.



**Ez Dok Amaitu!** ekimenaren baitan antolatutako Plaza Handiko ekitaldietan benetan gustura ibili ziren haurrak joan den larunbatean. Elgoibarko Izarrako begirale taldeak egun osoko egitaraua prestatu zuten haurrentzat: goizean jolasak, arratsaldean diskoteka eta egunari agur esateko, txokolate jana.

**Fotero**
OKINDECIA
OPILDEGIA
San Frantzisko, 4
\jel. 74 07 35

TX1R1BOG
*Taberna*
GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK
Plaza merkatua 23-24
Tel: 74 18 24

GLAZA
PREZIO BEREZIAK
KANPING ETA
HONDARTZARAKO
ARTIKULUETAN
P. Muguruza 8. Tel 74 16 42 ELGOIBAR



AZKUE

**Aurten 50 urte** betetzen dituzten elgoibartarrak eta egun hau ospatzeko elkartu zirenak ditugu parrokia atzeko parkean ateratako argazkian. Joan den larunbateko jaiari meza batekin eman zioten hasera. Ondoren Baltasar elkartean lunch-a izan zuten eta 2,30ak aldera Herri Gain jatetxean bazkaria. Giro ezin hobean pasa omen zuten eguna, jadanik mende erdi bete duten elgoibartar hauek.



**San Bartolome Ikastolako** 5. eta 6. mailako 114 ikaslek eta 4 irakaslek, Zuazako uhartean (Araba) hiru eguneko egonaldia egin zuten joan den astean. Gorputz heziketa osatze aldera, uretako kirolak egiteko aukera izan zuten ikasleek, arrauna, pedaluntziak, surfa, optimist eta piraguismoa, besteak beste.

## • UEUrako dirulaguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak XXI. Udako Ikastaroak burutuko ditu uztailaren 18tik 30era bitartean, Iruñeako Larraona Ikastetxean.
Bi astetan zehar makina bat mintegi, praktika, ihardunaldi eta emanaldi izango dira, kultur ekitaldi eta saio osagarriekin batera. Ikastaro hauek egiteko aukera eskaintzen da, besteak beste: antzerkilaritza, artea, musika, ekonomia, eusko kultur gaiak, filosofia, historia, kazetaritza, soziologia, glotodidaktika, literatura, natur zientziak...
Matrikula epea ekainaren I etik 30era da. Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntza eskaintzen die, beka gisa, langabetu eta ikasleei. Informazio gehiago, Udaletxeko Euskara Zerhitzuan edo 74 43 66 telefonora deituta goizez.

## • Autodefentsa ikastaroa

Andraize Emakume Taldeak autodefentsa ikastaroa antolatu du. Emakumeak egunero jasaten dituen erasoen aurka borrokatzeko eta isiltasunetik ateratzeko modu bat izan daiteke autodefentsa, emakume taldearen ustez. Ikastaroa hilaren 18 eta 19an burutuko da eta bertan gai ezberdinak landuko dira: kaleko erasoak, etxekoak, lanekoak, kuadrilakoak...erasoen eta egoeren zergatiak. Ikastaroak ezintasuna eta segurtasun eza alde batera uzten lagunduko die emakumeei. Izena emateko, hilaren 14an hasi, asteartea, eta 17ra bitartean, ostirala, ondoko telefono honetara deitu: 75 51 01 (goizez 9etatik 12etara, arratsaldez 3etatik 7etara).

DEBABE
UDAL ~ ELIS KAITEGIEN MANKOMUNITATEA
- PIAFARROA. ENPARANTZA, 2
'I: 1427 31
201370-ELGOI az,R

ONDO PASA UDA HONETAN
EUSKARA GUREKIN IKASIZ

Ikastaro trinkoa: 5 ordu egunero
iraupena: Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
Matrikulaldia: Ekainaren 6tik 24ra

P4444<)4
ETXEBERRiA Ahizpak
Santa Ana,1
Tel. 74 01 40 ELGOIBAR

# 1994. URTEKO UDAL AURREKONTUAK

## SARRERAK

| | |
|---|---|
| Zerga zuzenak | 171.366.182 |
| Zeharkako zergak | 16.500.000 |
| Tasak eta beste sarrera batzuk | 191.966.431 |
| Transferentzia arruntak | 542.564.044 |
| Ondarezko sarrerak | 5.153.000 |
| Inbertsio errealen inorenganatzea | 3.000.000 |
| Kapitalaren transferentzia | 64.450.343 |
| Finantz pasiboen aldaketa | 160.000.000 |
| GUZTIRA | 1.155.000.000 |

## GASTUAK

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 295.476.220 |
| Zerbitzuak eta ondasunen erosketak | 165.213.133 |
| I nteresak | 129.763.264 |
| Transferentzi arruntak | 226.520.361 |
| Inbertsio errealak | 238.724.222 |
| Kapital transferentziak | 2.088.000 |
| Finantz aktiboen aldaketa | 60.201.180 |
| Maileguen amortizazioa | 37.013.620 |
| GUZTIRA | 1.155.000.000 |

## GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ SAIL

### e HAZIENDA
### • FINANTZAK

**% 24**

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 26.847.665 |
| Maileguen interesak | 129.763.264 |
| IMHko museoak | 1.500.000 |
| DEBEGESAri transferentziak | 7.464.658 |
| Familiei diru itzulpenak | 1.200.000 |
| Diputazioari zorra | 47.951.180 |
| Elgoibarko industrialdeari kapital handitzea | 12.250.000 |
| Maileguen amortizazioa | 37.013.620 |
| Entitatearen alde bilketa zerbitzua | 4.760.133 |
| Dietak eta bidaiak | 200.000 |
| Bulego altzariak eta ekipamendu informatikoa | 2.630.800 |
| Bulego gastuak | 2.900.000 |
| **GUZTIRA** | **274.481.320** |

### e BARNE SAILA

% 1 0

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 94.945.230 |
| Karguen dieta, garraio eta protokolo gastuak | 1.050.000 |
| Zerbitzuak eta ondasunen erosketa | 20.820.000 |
| Bulego ekipamendua | 354.541 |
| Udaleko bateratze entitateei | 500.000 |
| **GUZTIRA** | 117.669.771 |

### • GIZARTE PRESTAKUNTZA
### • ONG1ZATEA
### • OSASUNA
### • AZOKA

**% 19**

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 102.702.098 |
| Zerbitzu eta ondasunen erosketa | 19.115.000 |
| Drogomenpekotasunak | 200.000 |
| Irabazte xederik gabeko erakundeei | 3.500.000 |
| Etxez etxeko laguntza programa | 11.300.000 |
| San Lazaro egoitza | 4.000.000 |
| Pobreziaren kontrako plana | 10.000.000 |
| Kale garbiketa | 30.200.000 |
| Zabor bilketa | 33.238.023 |
| Kontsumo bulegoa | 1.672.452 |
| Merkatu Plazako obrak | 3.422.561 |
| Zaharren biltokiko obrak | 325.000 |
| Zaharren biltokia | 400.000 |
| **GUZTIRA** | 220.075.134 |

610 ,9", 2 42 2, 2 -10 2 2 ge, 6
78«9 8 2 9u1 065 / g8 963

## • EUSKARA



% 2

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 3.144.922 |
| DEBABE euskaltegia | 9.304.248 |
| Irabazte xederik gabeko Erakundeei | 10.390.000 |
| Aubixa, Baratze, besteak. | 1.000.000 |
| Norbanakoei dirulaguntzak | 310.000 |
| Bulego gastuak, argitarapenak, garraioa. | 815.000 |
| ***GUZTIRA*** | **24.964.170** |

## • KULTURA
## • GAZTERIA
## • KIROLA
## • HEZKUNTZA

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 17.726.550 |
| Zerbitzuak eta ondasunen erosketa | 71.060.000 |
| Eskolak | 9.100.000 |
| Musika eta Dantza Fundazioa | 31.000.000 |
| IKASBAT | 4.000.000 |
| Guass diskoteka | 2.000.000 |
| Haurtzaindegiari dirulaguntza | 5.000.000 |
| Norbanakoei dirulaguntza | 2.000.000 |
| Auzoetako jaiak | 2.400.000 |
| Kultur elkartoak | 6.400.000 |
| Kird elkarteak | 7.500.000 |
| Kontserbatorioko sotoa erosteko | 1.500.000 |
| Herriko Antzokiko lanak | 89.000.000 |
| Kultur etxerako altzarien erosketa | 300.000 |
| Liburutegiko liburuen erosketa | 1.700.000 |
| San Migeleko pilotalekuaren estaltzea | 5.000.000 |
| Mintxetako instalakuntzen zati bat | 50.000.000 |
| Kiroldegian egin beharreko obrak | 2.000.000 |
| ***GUZTIRA*** | **307.686.550** |



% 2V

## • HIRIGINTZA
## • URA
## • KALEAK
## • NEKAZAL LURRAK

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 50.109.755 |
| Zerbitzu eta ondasunen erosketa | 16.093.000 |
| Alkantarila sistema | 3.400.000 |
| Kaleen konponketa | 6.000.000 |
| Argiztapenaren kontserbazioa | 7.000.000 |
| Kaleetako argindarra | 12.000.000 |
| Ur patzuergoa | 30.940.980 |
| Lurren erosketa | 2.100.000 |
| Lansarien zenbatekoa | 5.000.000 |
| Foruon Plaza 6ko lokalaren 2. ordaina | 15.000.000 |
| Foruen plazako bulegoko obren likidazioa | 1.000.000 |
| Inmuebleen konponketak | 1.500.000 |
| Altzolako depositoko tuberien konponketa | 3.800.000 |
| 1988ko uholdeetako obren bukaera | 5.000.000 |
| Bide publikoetako seinaleak | 6.400.000 |
| Pedro Muguruza etorbideko obrak | 10.000.000 |
| Umeentzako jolasak parkean jartzea | 4.316.320 |
| Leku-ederreko parkea | 3.600.000 |
| Brigadarako tresneria | 475.000 |
| Oztopo arkitektonikoak kentzea | 3.800.000 |
| San Pedroko zelaia konpontzea | 500.000 |
| Nekazal lurretan egin beharreko lanak | 20.000.000 |
| DEBEMEN | 2,088.000 |
| ***euzn*** | **210.123.055** |

% 18



# Josu Mujika:
# "Koreografoak espazioa margotu behar du"

**Irrifartsu erantzun die Josu Mujikak egindako galderei. Adina galdetu diogu; 36 urte, ia denak, dantzara emanak. 24 urterekin profesionala zen, lehenagotik dantza munduan sartuta egon arren. Barcelonako "Instituto del Teatro"n bi urte egin ondoren Belgikara joan zen, handik Italiara. Han eta hemen ibili ondoren, iaz, Elgoibarrera itzuli zen, "nere herrira". Komunikabide gehienetan agertu da *Arteszena* sortu berriaren eskutik burutu duen *Amets beroak* izeneko ikuskizunaren koreografoetariko bat eta aholkulari ere izateagatik. Hitz jario erraz eta amaigabeaz haren berri eman digu.**

**- "Amets beroak", zure ametsa izan al da?**
- Norbaitek bota zuen ideia eta oso aberatsa iruditu zitzaidan. Berehala hasi ginan ni eta kanpoko bi koreografo lanian. Bakoitzak bere ikuspuntua eman du. Nirea momentu bateko ametsa izan da baina orain aukera emango balidate, zeharo ezberdina asmatuko nukeela uste dot. Ideia asko "en el tintero" geratu dira.

**- Eta ideia horiek egiteko asmorik?** Euskal Herriari buruz espektakulu bat oso gustura egingo naban, edo gaur egungo bizimoduari buruz ere badaukat idea pilo bat. Eguneroko bizimoduak ematen ditu ideak; kontua da, gero ideia hoiek dantzaren munduan transformatzen jakitea. Honek ez dit beldurrik ematen, kezka handiagoa ematen dit idea gutxi edukitzeak.

**- Dantzan jarraituko duzu, ala?** - Bai. Asko gustatuko litzaidake hiru edo lau dantzarirekin, nik bertan dantzan egitea, hau da, koreografia egin eta dantzari izatea.

**- Noizko "Amets beroak" Elgoibarren ?**
Udazkenian berriz hasiko gera ikuskizuna ematen eta uste dut Elgoibar artean egongo dela.



**"Adinarekin eskenatokian egoten ikasten da, ofizioa egiten da"**

**- Ulertzen al dugu dantzaz?** - Uste dot ezetz. Gainera klasikoa, modernoa... nahastu egiten ditu jendeak. Gauza ez da klasikoa ala modernoa den, kontua da dantza dela eta pelikula bat ikusten dugunean bezala, ondo pasatzea dela helburua.

**- Mitifikatuak al zaudete dantzariak?** - Ez naiz inoiz konturatu. Dantzatik bizi izatia ez da erraza, eta ez da arrunta. Gainera, nire kasuan, nahi nuena egiteko kanpora joan behar izan nintzan. Ez litzateke horrela izan beharko. Norberak hemen dantza ikasteko aukera euki beharko luke eta gero, nahiko balu, kanpora joan.

**- Euskal Herrian folklorera mugatzen al da dantza?** - Folklorea onartzen da beti ikusi dugulako, baina bestea ez dugu ulertzen. Bakoitza bere arauekin, baina biak dira dantza. Dantza klasikoan pausu batek "paso del vasco" izena dauka eta beste batek " salto del vasco". Zuberotarrek Pariseko kortean egiten zuten pausuak izango dira ziurrenik, gero teorikoek hartutakoak.

**- Hitzaren ordez, dantza?** Jaietan hitz egin ordez dantza egiten dogu. Dantza norberak gorputzean duen zerbait da. Umetan dantzan egiten dugu, baina nagusitzen goazenean, gure barru barruko zerbait espresatzen egongo bagina bezela ulertzen dugu dantza eta ez dugu kontrolatzen. Horregatik nahiago dugu geldi egon eta guk sentitzen duguna ez espresatzea.

**- Nola ikusten duzu koreografoaren lana?**
- Sentsibilitatea euki behar du, unea kaptatzen jakin behar du koreografoak. Pintoreak bezala, koreografoak espazioa margotu behar du. Dantzak berehala alde egiten du. Zenbat eta sentsibilitate gehiago izan, une hori iraunkorragoa izango da.

**- Jubilatzen al dira dantzariak?** Noski. Maiatza Dantzan-en egon dira 50 eta piku urteko hiru holandes eta kristonak ziren. Orain klaseak hartu gabe nago eta igartzen det. Bi hilabetetan, ordea, forman egon naiteke. 40 urterekin gehiago kostatuko litzaidake eta 50 urtekin igual ez duzu forma lortzen. Baina adinarekin eszenatokian egoten ikasten dugu, ofizioa egiten da.

# Txiki BARREN

## O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 4. GEHIGARRIA



ler

Iz dakigu argazkia ateratzen ari ginelako plantak egiten ari ziren, baina, bistan denez, gela horretako neska-mutikoek bazuten lanerako gogorik. Ekaina gainean dugu, oporrak ere ate joka ari zaizkigu eta eguraldiaren beroek aurreko biekin bat egitean, sortzen da, nagusi zein gaztetxoen artean, horrelako bizi-poz berezi bat. Ez da, ez, berdina izaten zeru beltz baten iluntasuna leihotik sartzean daukagun prestutasuna edota eguzkiak argitutako gela baten giroa. Beharbada bigarren kasuan despistatu gehiago ibiliko dela usteko du inork, arrazoiak ere ugariagoak clira horretarako, baina ez al da askoz atseginagoa ekaineko usaia, irailean somatzen den beste hura baino?

21,

## IRRI-MIRRIKA



# Jakitunen eskutik

## Ekaina, azterketen hilabetea

Azterketa hitzaren esanahia dela eta, hiztegira jotzen badugu esanahi diferenteak aurkitzen ditugu. Hala nola: Azterketa: 1. Lurra aztertzearen, zulatzearen ekintza, miaketa. 2. Zerbaiten bila egiten diren saioei deitzen zaie. 3. Ikaslearen ezagupen maila zein den jakiteko egiten den froga. 4. Gai bat zehatz mehatz estudiatu eta ikertzearen ekintza. 5. Analisia.

Badirudi mementu honetan hirugarren esanahiari buruzko iritzia eskatzen zaidala.

Kurtso bukaera denez, komunikabideetan eta jende askoren ahotan dabilen gai bat da. Baina, beharbada, pertsona bakoitzak azterketa hitzaren esanahi hau bere erara interpretatuko du.

Gaur egun, irakasle bezala, azterketa hitza erabili beharrean ebaluazio hitza erabiliko nuke.

Dudarik gabe ebaluazioa onartzen da irakaskuntza ikaskuntza prozesuaren barruan, baina ikuspegi osatuago batean.

Ebaluzioak, hiru betekizun ditu. Batetik, egoeraren berri ematea (diagnostikoa). Bigarrenik, eba!uazioaren bidez prozesua bera ere hobetu ahal izatea, eta hirugarrenik, helburuak lortu ditugun ala ez jakiteko balioko digu. Eskolak, era honetako ebaluazioak planteatzen ditu.

Eskoletan, aldaketa prozesu bat eman da gai honetan. Egokitzapen indibiduala lortzen ari da. Badirudi gizarteak, ostera, beste era bateko azterketak erabiltzen ditue!a, lanpostu bat lortzeko adibidez. Hemen egokitzapen indibidual honek ez du lekurik, konpetitibitatea baita nagusi, hau da, normalean onena denak lortzen du lanpostua.

Horrela gauzak, badirudi ez datozela bat eskolaren filosofia eta gizarteak ezartzen duena. Beraz, zein eratako azterketak egin behar dira?



MARI KARMEN AZPIAZU

## Ze iritzi daukazu sigaft.,Inft ... ei buruz?



1|i~ D30 120W4 qa444 ai~h, +4.4 44 1€4,0 4~44

:vi1wa r'H' 2444:

JUAN DIEZ DE LA FUENTE. 13 urte



'Ne—— v41) ip,atUa 441u) ko4,3," 44,11,1u, €4,WU

,44€4,1444, 143/»14g,€) laso:

SON1A SEGUNDO. 10 urte



li 14,44344.44 teg~tellva, yAltaimak

44e1.1,4D. P40,4w, wi,1;./Kaix. €4~ e/i4isily/K r4%."

BEÑAT KONDE. 7 urte

# Galde debalde

1.- Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?
2.- Zer galdetuko zenioke ispilu magiko bati?
3.- Eta zer entzun nahi zenuke?
4.- Noren posterra jairriko zenuke zure gelan?
5.- Idazten al duzu diariorik?
6.- Esan dizuten gauzarik politena?
7.- Zerk aspertzen zaitu?
8.- Zein animalia izan nahi zenuke?
9.- Gustuko duzun hokadiloa?



***Flena Laskurain***
***7 urte***

1. **Nere lagun-lagunak dianeri; sekreto politxak izaten dia.**
2. **Aber zein dan munduko neskarik politxena.**
3. **Elena Laskurain**
4. **Txirri, Mirri eta Txiribitonena.**
5. **Bai, lagun batek erregalotu zidan eta nere zorionak noiz dian eta idazten dot, pasatzen jatazen gauzak.**
6. **Ez dakit. Bueno behin nere amatxon lagun batek esan zian oso guapa naizela.**
7. **Eskolak.**
8. **Katua, politxa dalako.**
9. **Txorixo bakadiloa.**



***Ivan 19elle***
***12 urte***

1. **Deperde ze sekretu dan etxean kontatzen det baina normalean lagun oneri,**
2. **Aber nor dan munduko politxena**
3. **Nere izena.**
4. **Barrikadarena daukat jarrita eta "Seguridad Social"ena ere ipiniko nuke.**
5. **Ez, ez zait gustatzen nere gauzak papelean idaztea.**
6. **Tio bueno. Neska batek esan zidan.**
7. **Arrantzara joaten naizenean ezer ez harrapatzeak.**
8. **Zaldi basati bat, mendian askatasun osoz bizi direlako.**
9. **Sardina bokadiloa.**

---

## AISIADIS1 ittLISEEZ J urte



**"Guardia Zibilen zuzendaria zen. Espainiatik ihes egin zuen diru** beltza zeukalako."

## MALI MAR 14G14 11 urte



**"Bere izena Luis** da eta telebistan asko irteten da. Uste dut Espainian ez dagoela eta Estatuak ez dakiela non dagoen. Diru asko ordaindu behar du."

## AkIlreL ALL1LTA J urte



**"Guardia Zibilaren** gobernadore ordea da. **Gaiztoa denez bere** atzetik doaz poliziak. Lekuren batean dago izkutaturik. Egunkariak bakarrik daki non dagoen."

## JAVIE12 NOVIDA 12 urte



"Zibil madarikatu bat, lapur leloa eta farsantea. **Hitz batean esanda...** 'lapurra'."

## *FIISADFTII ursorro* 9 Urte



**"Uste dut txirrindulari bat dela, karreran lehena edo bigarrena edo** hirugarrena heldu zela. **Neretzat oso txirrindulari ona da eta aurrera** jarrai dezala."

## LIZ1119. IIVIONDO J urte



**"Espainiako** Guardia Zibilaren zuzendaria zen. Ihes egin zuen polizia bera bilatzen zegoelako. Umezurtzen egoitzatik **4** milioi pezeta lapurtu zituen."

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Nor da elgoibartar hau?



## 2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?

..................................................................

..................................................................



**SANTI FERNANDEZ**
13 urte

**Ni paretaren ondoan nagoenez, bertan idatziko nuke edo, bestela, paper batean idatzi eta berokiarekin estaliko nuke. Bafzuek estutnan sartzen dituzte orriak baina, orain ez digute uzten estutxeak mahai gainean izaten eta jendeak boligrafoen tapan sartzen ditu."**

**JON MUNIN**
9 urte

**"Norbaiten alboan jarri eta frakaslea armariora doanean begiratuko nioke. Ikusi izan dot bat beste batekin Hz egiten baina bajuan, ez entzuteko irakasleak. Bestela zaila da, irakasleak beti altxatzeko esaten digu eta leku guztietan begiralzen du."**



## 3. Asmakizunak:

111 **Bi** anaia gorri:
isilik, beti elkctrtuta.
**Hitz** egin nahi badute,
orduantxe banatuta.

Zer da? ..............................

■ Zizt egiten badizuet
oso da mingarria,
baina egiten dut ere
aho askoren gozagarria.

Zer da? ..............................

E Erdian luzeena,
bi motzagoen artean,
bazter batean txikiena
eta potoloena bestean.

Zer da2..............................

## 4. Kordel hauen muturretatik tiratzen badugu, zeinetan egingo da korapiloa?






**Erantzunak hurrengo astean aurkituko dituzu " Merkatu Txikia"ren orrialdean**

# Mari Tere iraeg

## Tik-Tak dendakoa



- **Zergatik Tik-Tak?**

ll Seme nagusixa txikixa zanian erlojerixatik pasatzerakuan beti hasten zan tik-tak, tik-tak, asko gustatzen jakozen erlojuak eta. Senarrari akordau jakon izen horixe

- "Habe **da zahartzarora iristea beti ume izatea baino". Ados?**

IBai, hobe izaten da bizitzako ziklo danak betetzia, bakoitzak bere gauza onak eta txarrak dauzka.

- **Egin duzun azken umekeria?**

Ba haserretzia, terkatzia edo holakotxe zeoze.

- **Umea zinenetik geratu al zaizu oroitzapenik?**

I Etxeko girua: etxeko usaina, aman izaera eta aitxan kariñua flash modukuak dia, beti geratzen diazenak.

- **Umeen ingenuitatea ala inozentzia?**

I Inozentzia politxaua da, umiak dakan nortasuna da.

- **Umeak hondartzan bainujantziarekin ala barik?**

I Trajedebainuakin; ezer barik zikina da. Hankabitxartia dana harez beteta hemengo "playa" zikinekin peligrosua da.

- **Ba al dago umeen modarik?**

INagusixen modiak markatzen dau umiena. Aldatzen dia tejiduak, koloriak eta sinplizidadia, gozatu itxen da umientzako.

- **Neskak arrosaz eta mutilak urdinez?**

Hori oso tontokerixia da, gaur egunian kenduta dao, bakoitzari ondo emoten diona jantzi bihar jako.

- **Kolore fuerteak ala suabeak?**

Garbi trazia izan deixala, izan leike fuertia baina beti garbixa.

- **Umetan izan zenuen jolasik gordetzen al duzu?**

Eguṅezko kosturero bat, eskuz pintxautakua larrosa haundi batekin, tapian azpixan daka espilo bat eta gero bere konpartimentuak harixak gordetzeko. Amamak erregalautakua da eta estimazio haundixa diot.

- **Txikitako ilusiorik?**

I Madriden itxen zeben Mari Pepa izeneko muñeka politx bat, arropa oso politxakin. Haxe nahi naban nik eta erregieri eskatzen niuen baina oso karua zan ta sekula ez naban lortu.

- **Denboran atzera ala aurrera bidaiatuko al zenuke?**

I Aukeran, osasun onakin nahixao dot aurrera atzera baino.

DOINUA:Norteko trenbidea

Ostegunean goiz egiten det
azoka aldera mugitu
ta Elgoibarko enparantza horrek
baditu hainbat meritu.
Hor egoten da zenbait prencla
oinetako tresnamendu.
Zerbait beharrik izan ezkero
badago zer aukeratu.

Janari azokara egiten det
nere hurrengo zankoa,
hemen ez zaigu ezertxo falta
denetarik dago nahikoa.
barazki, fruitu, arrain, haragi
gainera aukerakoa,
mahaia homitzeko ●♋□□□⬧♋ &□"♏●♓■
eta usain gozokoa.



DANIEL LEGORBURU


**Z2U4Dblk**
**ITURGINTZA**

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30





**Mandiolla S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. -Ťr 74 12 56 - hugikor.) 908 17 10 42

## "Oporretan euskaraz" kanpaina martxan

Udaleko Euskara Zerbitzuak zenbait ekintza antolatu ditu uztailerako. Helburua Elgoibarko ikasleen arteko euskararen erabilpena eskolaz kanpo ere bultzatzea da; ikasten ari direnek hitz egiteko erraztasuna har dezaten eta dakitenek erabil dezaten.

**Udaleku irekiak** uztailaren letik 21era izango dira, goizeko I Oetatik 13,30etara bitartean. Ekintza gehienak kanpoan egingo diren arren, zenbaitzu Kultur Etxean, liburutegian eta ikastetxeetako frontoi eta geletan ere izango dira. OHOko 2., 3., 4. eta 5. mailako haurrei zuzendua dago.

**"Denbora-pasa euskaraz"** uztailaren la eta 22a bitartean burutuko da, goizero 10etatik I2etara. Honako hau eskolaurreko I., 2. eta 3, mailei zuzendua dago, bai eta OHOko lgo mailari ere. Sukaldaritza, esku-lanak , euskal dantza eta txalaparta **ikastaroak** ere emango dira, bi txandatan banatuak, goizero pare bat orduz. Lehenengo txandan 5. eta 6. mailakoek hartuko dute parte. Bigarrenean, 7.ekoek eta 8.ekoek. Ikastaroaren prezioa 500 ptakoa da, udaleku eta denbora pasena 2.000 pezetakoa txanda osoa egin nahi denean eta erdia aste bakar bat aukeratzen den kasuetan. Izena emateko epea ekainaren 6tik 15era luzatuko da, Kultur Etxean.

# Aurtelgo Uciail **aurrekontua** 1.155.000kon **izango da**



HBk Mintxeta inguruan eraikuntzarik ez egitea proposatu zuen.

Joan den astean plenua izan zen eta bertan, besteak beste, 1994. urterako aurrekontua onartu zen, 1.155.000 pezetako aurrekontua, hain zuen ere. Herri Batasunak zazpi emendakin aurkeztu zituen baina gainontzeko alderdiek ez zuten bat bera ere onartu.

Transferentzia arrunten bidez 522 miloi inguru jasoko direla 1.1111Teikusten da, 191 milioi tasei esker eta 171 bat milioi, zerga zuzenei dagokionean. Gastuen artean, langileen soldatek, 295 milioi t'erdi hartzen dute eta inbertsioek, 238 milioi.

Herri Batasunak zazpi emendakin aurkeztu zituen. Batetik, Ikastolari, AEKri eta Zazpiki irratiari eman beharreko diru Iaguntzei buruzkoak. Eraikuntza ezberdinen ormak garbitzea ere proposatu zuten. Era berean, Mintxeta inguruan eraikuntzarik ez altzatzearen alde agertu zen, herritarrentzako parke edo antzekoak izan ezik. Azkenik, Santa Ana kalean dagoen *Gabilondo* enpresa kokatzen den lurretan babes ofizialeko etxebizitzak egitea proposatu zuten.

Kutxarekin kontratu bat sinatzea ere onartu zen, honen bidez, aurrezki kutxak 91 miIioko abala eskainiko du San Migel errekastoaren obren kostuari aurre egin ahal izateko. Elgoibarko Udalak, 436 milioiko aurrekontutik %25a ordaindu behar du.

Azkenik, aho batez onartu zen Euskal Herriak Saharako Las Dairasekin kidetzeko proiektua.



- **IZENA:** Begoña Mugerza
- **ADINA:** 41 urte.
- **LANPOSTUA:** San Lazaro egoitzako administraria
- **FUNTZIOA:** Egoitzarekin zerikusia daukan guztiaren ardura daramat, administrazioa, mantenua... Etxe txikia denez danetik egin behar duzu.
- **NOIZTIK LANPOSTUAN:** **Udaletxean 1984tik,** erresidentzian 1989tik.
- **LANAREN ALDE ONA:** **Dana da** ona, **batez ere, pertsonekin lan egitea eta ez ofizina huts batean egotea.**
- **ALDE TXARRA:** **Papeleo asuntua, askotan gehiegi egoten denez dena pilatzen da.**

# San Lorentzoko ermita

- Joan den astean hasi ginen San Lorentzoko ermitaren bueltan garai batean gauzatzen ziren ekintzen berri ematen. Oraingo honetan ere gai berari helduko diogu, auzo honek gauza asko eta bitxiak baititu benetan.

111 5an Lorentzo festetctn, bezperak abestu ondoren, auzotarrei zerbait jan-edatera gonbidatzen zitzaien, debalde. 1869ko datuetan ardoa bakarrik aipatzen da baina 1883an, ardoa ezezik, makailaoa eta ogia ere banatzen ziren. Gaur egun, oraindik ere, San Lorentzo egunean makilao jana antolatzen da urtero, haserako ohiturari jarraituz. Ondoren dankaldia izaten zuten, notatxoetan "danborileroen" askaria ere aipatzen baita gastuen artean.

- Biharamonean, Meza nagusiaren ostean, 1877tik aurrera, dantza egiten zutenei ardoa ematen zitzaien. Hiru urte geroago, "dantza atera" zutela esaten da, aurreskua.
- Bolo jokuan ere zaleak ziren San lorentzon.1896a geroztik bolatokia enkantean ateratzen zen, lortutako diruari esker ermitaren gastuei aurre egin ahal izateko, beharbada.
- Festa hauetaz gain, eta ekintza erlijiosoei dagokionean, 1645 urtetik aurrera, Gorpuzti garaian San Lorentzoren irudia Parrokiara, eramaten zen, Olaso parrokiaro haseran eta San Bartolomera gero.

Lehorte garain ohitura zen jaungoikoari, San Lorentzo bitartekari zela, euria eskatzea. Ekintza harekin lotuta hona hemen bailaran hedatua dagoen esaera bat: "Sallobente parrifla esku batian eta regaderia bestian".

Hiletak eta hilobtratzeak ere San Lorentzon bertan egiten zirela esango nuke nik neuk. Auzoko kanposantuari buruz bi aipamen aurkitu ditut, 1669ko abuztuaren 10ekoa bata, "San Lorentzo ermitako kanposantuan Ermuaran bailarako auzolagun batzu bildu ziren adierazpen bat bestea, 1748koa, Juan Arrillagak, urte hartako maiordomoak, 21 erreal ordaindu baitzizkion Zubelzuko Andres harginari San Lorentzoko ermitako hilerrirako harlauza batzuk ateratzeagatik. Froga arkeologikorik ez egon arren, bi aipu hauek adierazten dute ermita barruan kokatzen zela kanposantua, 1776an hilerria Olasoko monastegira paso zen arte.

PELLO ARRIETA



# Florentino Etxeberria Etxabe 0905-1974)



Oso ezaguna eta maitatua izan zen herrian. Elgoibar C.D. taldean jokatzen zuen. Tiburcio Beristain atezain zela eta Roke Fernandezekin batera defentsa postuan, hirukote bikaina osatu zuten.

0 Errealean ere jokatu zuen 20. hamarkadan.

0 Umorerik ez zitzaion falta. Bere presentzia soilarekin batzutan, eta bestetan kitarra eskutan eta kantu herrikoiak abestuz, berehala alaitzen zituen inguruan zituenak.

C Kitarra ederki jotzeaz gain, eskuz egiten zituen bere lantokian.

• Musika ez zen Florentinoren zaletasun bakarra izan. Marrazkilaria zen eta kuadroak ere pintatzen zituen. Erakusketarik ere egin zuen.

2.) 1974. urteko urnaren San hil zen 69 urte zituela. Garaiko egunkariek, luze idatzi zuten hil zen egunean Florentinoren gizabide eta popularitateari buruz.

HISPANIA ZURICH
C. Romera
Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.
zig behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 09

ORAIKO
ritAtaiska 25
E LGOI BA R

tenaro
Barruko erropak
Umeentzako erropak
l San Frantzisko 10, Tel.: 74 26 2

kirolak
getibi-aiark/rze,"brzura
A. Arrillaga, 14, .51 74 01 0

Garbiñe
Ecee,
P.M. Urruzuno 27..w 74 31 32

Mari
Merkatu Plaza 42-43

Iriondo
ALTZARIAK
Santa Ana 4-6. ☎ 74 12 34

2,14131 A_WW.
1 1T 44 44

Guass
DISCO TK
ELGOIBAR

OTZAKI
izotudii
Merkatu Plaza 19

NORBERTO
ZABALA
P9'72721Z1
Errosario 32. r. 74 08 45

1114vA
ufr2e4evteop1
Santa Ana 42-44. zr 74 44 51

ostar u
ARGAZKI DENDA
Santa Ana 5
74 06 46

TINDATEGIA
Foruen plaza 4. a 74 00 91

PIETWJ 1111/A
JANTZI DENDA
Rosario 14. ≤ 74 16 48

CUlt. ASTICIRMIGI
Errosario 1 8
zr 74 32 68

TXANKAKUA

UHRICLA
su.permerkatua
Urasandi 25. m" 74 40 82

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK
Kalamua, 1 2. s' 74 18 51

INTERIOR ES
ei2ostszia4
Errosario 15, behea. 74 40 19

Tik-Tak
Errosario 21. 13* 74 17 15

TXANKAKUA MEI
zude~ ada 6.4~4,6
TXANKAKU

LANBROA
elgoibar

ERROPA DENDA

ijr11,19PRij
taberna
Errosario, 28. 74 00 38

HEMENDiK
BODEGA
P. Muguruza, 20. s' 74 25 00

GOROSTIZA
LI B11111 ID ENIM
Errostrio 16. lr 74 OES 30

4041
0111ALA era MERZER1A
Errosario 8 74 35

GLAZA
P. Muguruza, 8. ☎ 74 16 42

Dori
urdaitegia
Errosario, 29yu 74 11 92

GARATE
JANTZI-DENDA
San Bartolame,13. z' 74 11 29

Se4trOt
San Bartolome 23
LURRENDEGI ETA GARBIKETA
AUTOZERBITZUA

KEMEN
Belardenda
San Bartolome 25. Tel 74 40 31

Bece
IZOZTUAK
Merkatu plaza, ≤ 74 05 99

BETI ItAGI
Errosario, 6. 74 16 44

Arrieta
modak
San Bartolome 18.
☎ 74 08 49

foto azkue
San Bartolome 26
Tel. 74 08 48

Maruamendiarar
ELGOIBAR
San Bartolome 35. Tel. 74 03 45

A4p41.o
IXARKUILIDIA
• MERKATU PLAZA •

JANARIDENDA
San Bartolome 1 2. e 74 1 2 26

Apraiz
San Bartolome 20. ☎ 74 07 44

7FTONCI
dek
San Barlolonic 74 01 91

MIMOX
San Frantzisko 19
$" 74 42 13

ZOBEL ZB
San Roke 7
u" 74 34 01

5IEURRD S BILBAG
San Frantrisko 42
n• 74 28 64
ELGOIBAR
M. Angel Canalese

Agirre
SASTRERIA
San Frantzisko 30, /s 74 03 41

ZAPATA DENDA
San Frantzisko 34. 'Et 74 02 35

licontxi
1:111121d
San Frantzisko 19. tr 74 15 32

tRZELAI
ELEKTRIZITATEA
ARGIGINTZA
Santa Ana 12-14 . a 74 13 76

FIDALGO
supermerkatua
San [nazio 9. t' 74 03 92

ARANBLIRLI
1011 Fra11Z1.5110 2(3.
Tel. 74 25 35

UZURI
OPTIKA
MultiOpticas
San Francisca, 21 - ELGOBAT-1
is• 74 03 59

ORTUET11
BOLTSAK GERRIKOAK
San Frantzisko 2. tr 74 04 95

Santa Ana 2
74 35 09
jEKORAZIOA

LAURITA
SUPERMERKATUA
wou wis wim
San Roke 34. s' 74 09 92

GARAY
HARATEGIA
URDAITEGIA
San Frantzisko 9. ☎ 74 13 92

iDARRAGA
KAFEAK
San Frantzisko 17. ☎ 74 05 33

eeaddi
LIBURUDENDA
San Frantzisko 56
1:r 74 02 40

WAR1 ELKARTEA
zenbaki sarituak:
093990
030232
072757
001074
011961
026777

garajea
ASTIGARRAGA
San Frantzisko 53
Tel. 74 01 86

10o444k
GOZOTEGIA
San Frantzisko 54 Tel. 74 41 37

tiffeor
ALTZARIAK
San Franlzisko 11
z• 74 11 88

ETXABE
FERRETERIA
Son Fronfrisko 45
Er 74 02 87

Casa Salegui
San Frantzisko 49. ☎ 74 28 75

aZPELEIVI
elektrizitatea
San Frantzisko 51 74 12 38

Vilarchao
ZAPA
San Frantzisko 34
ix 74 21 99

iReioNDo
blighinarb
San Frantzisko 37. 1r 74 09 56

KAIA

HARAT GIA
Patxi
San Bartolome 30. z 74 35 04

"m. ari*o
Barruko erropak
Umeentzako erropak
San Frantzisko 10. 74 26 19

ION
JANTZI DENDA
San Bartolome 37.
Tr 74 06 27

"itra4ote
lurrindegia
San Bartolome 6. m'• 74 17 89

we,,e7x,404
HARATEGIA
San Frantzisko 32.
lw 74 05 98

karkizano
San Frantzisko 14,
Ter. 74 05 49

ELORZA AH1ZPAK
San Bartolome 8, ELGOIBAR

PILAR
San Frantzisko 30. ☎ 74 18 35

11149
LURRINDEGIA
San Frantzisko 2. 71 74 02 99

ikus
OPTIKA
San Frantzisko 16. tr 74 37 34

11111ITE
gozotegia
San Frantzisko 15
74 1 6 88

LANDA
HARATEGIA
San Frantzisko 4. ☎ 74 27 58

PITXINTXU

VALENCIA
JOSTAILU DENDA
San Bartolome 16.
☎ 74 15 88

11\ROIN
ZAPATAK
San Frantzisko 13

# MITZAK

## Nahaste-Borrastean laguntzeko deia

Urtero bezala, ekainaren 21ean Nahaste-Borraste kirol lasterketa herrikoi eta berezia burutuko da herriko kale eta auzoetan zehar. Antolakuntzan laguntzeko bilera bat egingo da hilaren 16an Kimetz elkartean arratsaldeko Setan. Izena emateko hilaren 13tik 19ra bitartean Kimetz elkartetik pasa daiteke arratsaldeko 6etatk 9ak arte, edota 74 07 37 zenbakira deituta. Haurrek ikastetxeetan bertan eman dezakete izena, kirol arduradunari esanda. Duela bi urtetik, gaztetxoek parte hartzeko eskubidea eskatu zutenez, bi lasterketa ezberdin burutzen dira. Lehenengoa 10 eta 14 urte bitarteko haurrentzat. Hauek hilaren 21ean Kimetz elkartetik aterako dira arratsaldeko 7etan. Bigarren lasterketa, nagusiena, 7,30ak aldera hasiko da Plaza Handian, aurrekoa bukatu bezain pronto. Partehartzaile guztientzako afaria egongo da lasterketa ostean Kimetz elkartean. Antolakuntzak parte hartzera animatu nahi ditu herriko emakumezkoak, lasterketa herrikoia izanik, beharrezkoa baideritzaie, beraiek ere parte hartzea.

## Karate jaialdia Kiroldegian

Arrasate, Eibar, Oñati, Azpeiti eta Elgoibarko 103 karatekak parte hartu zuten joan den larunbatean Kiroldegian burutu zen eskolarteko karate jaialdian. Saioa berriro errepikatuko dute hil honen 25ean, Olaizaga kiroldegian, aurrekoan parte hartu duten herriek ezezik, Markinak ere bai.

# Argiñe Gabilondo

## "Arrakasta izugarria izan du muskullazio gelak"



**Zer moduzko harrera izan du Mintxetako muskulazio gelak?**
Uste baino hobea. 50 pertsona kopuru polita izango zela uste genuen eta orain 125 daude. Izugarrizko arrakasta izan du.

1 **Nola antolatu duzue hainbeste jende?** - Taldeak sortu eta orduoro zirkuituak egiten dira. Bakoitza nahi duen orduan etortzen da eta orduoroko zirkuituan sartzen da. Batzuek bukatu ahala eta beste batzuekin hasten naiz.

1 **Zer egiten duzue klase batean?** - Lehen ordu erdian beroketa egiten dugu, estiramenduak, mugikortasuna... eta beste ordu erdi edo malcinetan. Makinak erabiltzen ikasi duen jendea, beroketa ariketak eta gero, bakarrik aritzen da nik jarritako plana jarraituz.

1 **Gorputza oso osorik lantzeko aukera al dago?** - Bai, bizkarra, bularra, izterrak... muskulu guztiak. Jendeak orokorrean sendo egotea nahi du, baina batez ere, pisua kentzea eskatzen dute, tripa, izterrak... Mantenimendua eta tripa jeistea.

1 **Muskuluak lantzera doazenak ere egongo dira.** Bai. Etortzen direnak Iehenagotik egiten zutenak dira. Emakumeek esaterako, beldurra diete makinei ez dutelako muskuluak oso nabarmenak izaterik nahi. Errepikapen asko pisu gutxirekin, muskuluetan tonua deitzen dena lortzen da. Errepikapen gutxi pisu askorekin egiten bada, muskuluak handitu egiten dira. Hipertrofia lortu nahi duen jendeari test bat egiten zaio makina bakoitzean, bakoitzak egin behar dituen serieak ezartzeko.

1 **Zergatik uste duzu gertatu dela "boom" hau?** - Ez zegoelako ezaugarri hauetako lokalik. Kiroldegiko gela hor egon da, baina ez zegoen egoera onean. Gainera, pertsona baten irakaspenak izango zituela jakitean, ba jendea animatu egin da. Eta eguraldi onak ere izango zuen eraginik.

1 **Lagata al daukazu atletismoa?** - Lagata daukat hiru urte lesioekin bueltaka nabilelako. Eskumako hankarekin izan ditut arazoak. Aurten neguan korritu dut baina berriro nabil txarto baina, jarraitzeko asmoa daukat.

1 **Eta masajeak?** - Oraindik ez ditut kirol masaje ikasketak bukatu baina askok fabore bezala emateko eskatzen dit. Beti gustatu izan zait eta ahal bada honetan lan egiteko asmoa daukat.

• Adina: 23
►Asteko egun bat: Larunbata
Zaletasunak: Hondartza eta lo egin.
• Argaltzeko metodurik onena? Ez obsesionatu, normal jan eta kirol piskat egin.

• *fnazzo M&tezzawdzia cifIttsiju*

**Solfeo, Koral, linstrumentu** eta **Dantza** matrikulak zabalik daude

Ekainaren 6tik 17ra. Plaza Agirre 3 - 1. (ordutegia: 5-7)

# Eska ada txapelketa eta dantza-eskalada saioa

**Larunbat honetan, hilak 11, Euskadiko Eskalada txapelketa burutuko da Olaizaga ki ro Idegian. Euskadiko eskalatzaile onenak ekinean ikusteko aukera, dudarik gabe. Txapelketa egun osoan zehar izango da eta gauean, iaz izandako arrakasta ikusita, Patxi Arozena, Txema Gomez, Carles Brasco eta Carlos Garcia eskalatzaileek dantza eta eskalada ikuskizuna burutuko dute.**



lazko txapelketaren aurkezpena. Ana lbañezen ordez Carlos Garcia etorriko da aurten.

Larunbatean izango den Euskadiko Eskalada txapelketa goizeko 10,30etan hasiko da, finalerako sailkatzeko frogak izango dira. Finalera lehen 10 eskalatzaileak sailkatuko dira. Faboritoak Bilboko txapelketako irabazlea eta iazko Euskadiko txapelduna den Gotzon Gardeazabal da, Patxi Arozena donostiarrarekin batera. Emakumezkoetan, Josune Bereziartua Espainiako eta Euskadiko txapelduna eta aurten gogor dabilen Beatriz Jimenez bergarararreran artean izango da lehia. Arratsaldeko 6etan hasiko dira finalak, emakumezkoenak eta gizonezkoenak, eta bukatzean atsedenaldi bat egingo da gaueko saiora arte.

Gaueko dantza eta eskalada saioaren aurretik, eta ikuslegoa girotzeko asmoz, finalerako sailkatzen diren lehen 16 eskalatzailek "Bizkortasun froga" deritzona jokatuko dute. Guztira 8 igoaldi egingo dira, eskalatzaileak binaka igoko baitira. Kanporaketa sistema bidez, bikote bakoitzetik denbora gutxien egiten duten eskalatzaileak sailkatuko dira, eta beraien artean jokatuko da finala. Saio hau gaueko I letan hasiko da eta ordubete beranduago sariak banatuko dira.

Gizonezkoen irabazleari txapela, garaikurra eta 40.000 pezetako saria emango zaizkio.

Emakumezkoetako irabazleak txapela, garaikurra eta 30.000 pta. jasoko ditu eta, bizkortasun frogako txapeldunarentzat garaikurra eta oparia egongo da.

Gauerdi partera, 12,15etan hain zuzen, dantza, musika, eta eskalada ikuskizuna hasiko da. Iazko arrakasta ikusita, antolakuntzak ez du saio hau antolatzeko dudarik izan. Estatuko eskalatzailerik onenak ekinean ikusteko aukera izango da. Partehartzaileak Patxi Arozena, Txema Gomez, Carles Brasc6 eta Carlos Garcia eskalatzaileak izango dira.

**KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASNAK**



**lkas Blai taldeak** Euskadiko txapela lortu zuen joan den astebukaeran infantil mailan. Finalean, 17 eta 9ko emaitzaz irabazi zuten, arabarrekiko nagusitasuna erakutsiz. 13 neskaz osatutako talde honen entrenatzailea Jose Peñaranda izan da. Euskadiko txapeldunek, ziurra ez bada ere, Espainiako eskubaloi txapelketa joka dezakete. Datorren denboraldian taldeak Elgoibar K.E. Eskubaloi Taldean kadete mailan jokatuko du. Argazkian Ikas Blai: Lore Agirreazaldegi, Ainhoa Torres, Imma Aldazabal, Leticia Astray, Idoia Oiarzabal, Ainhoa Aduriz, Vanesa Gonzalez, Ariane Peñaranda, Leire Dieguez, Amaia Jauregi, Irati Uriguen, Patricia Rodriguez eta Silvia Vazquez.

## MOTZAK

### Bizikleta festa

Gipuzkoako Txirrindulari Federeazioak urtero antolatzen duen "Bizikleta festa"ra joateko autobusa atera du Elgoibarko Txirrindularien Lagun Taldeak. Festa larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 4etan hasiko da Anoetako belodromoan. Plaza Handitik, eguerdiko 2ak eta laurdenetan irtengo da autobusa.

### Saskibaloi taldea osatuko da datorren denboraldian

Joan berri de aste honetan egindako bileran, saskibaloi taldea osatzeko prest dauden 18 eta 27 urte bitarteko 25 gazte elkartu ziren. Ezertan hasi aurretik aurrekontu bat prestatuko dute eta kluba sortu edota herrian funtzionatzen duen klub batean sartzea erabaki beharko dute. Asmoa datorren denboraldian jokatzen hastea litzateke, entrenatzailea lortuz gero behintzat. Saskibaloi talde honek gizonezkoen bigarren dibisioan jokatuko luke. Aipatu, Federazioak saskibaloi entrenatzaile titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu duela ekainean eta uztailean zehar. Informaziorako Kirol Zerbitzura (74 44 15).

# Gorka Garatek, judoko Euskadiko [illegible]tua lortu du

orka Garate judoka elgoibartarra, Euskadiko eskolarteko txapeldun berria da. Ibai gimnasioko judokak, erraz irabazi zien Nafarroa eta Arabako ordezkariei, 15 urtez azpiko eta 50 kilorainoko Euskadiko txapela eskuratu zuelarik. Gorkak hilaren 18 eta 19an izango den Espainiko Txapelketan parte hartzeko aukera izango du federatuen kategorian lortutako zilarrezko dominari esker.

Euskadiko txapelaz gain, alebinetan eta infantiletan, emaitza ezin hobeak lortu ditu Ibai gimnasioak. Legazpin izandako IV. txapelketan 12 judokaz osatutako taldetik bostek, urrezko domina lortu zuten. Hauexek ziren urrezkoa eskuratu zutenak: Maialen Mora, Zurifte Polo, Esther Idiakez, Xabi Gonzalez eta Aitor Mugerza. Zilarrezkoa Mikel Sastrek eta Aitor Gabilondok lortu zuten eta brontzezkoa Miren Mugerzak, Maria Idiakezek, Iker Rodriguezek, Aitor Gonzalezek eta Mikel Muñozek.



Araba Euskaraz 94
• AUTOBUSAK AUTOBUSAK • AUTOBUSAK •
• Ekainaren igan, igandea, Lapuebla de Labarkan
o Prezioa: 900 pta. (Bazkideak 600 pta)
hena emaltetb: ELGOIIIIARK0 HZARRA
ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea
LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

UCUTICUE
Dfl IDAS
Enpanada
Baserriko ogia
'!Ecenarro, 1 r 74 33

UDA BERRI
ELGOIBAR

# Uda guztian zehar, zinea doan

**Elgoibartarrek zinea doan ikusteko aukera izango dute uda guztian zehar. Ekainean zehar, eraberritutako Herriko Antzokira sarrera dohainekoa izango da, elgoibartar guztiek 9 hilabete iraun duten insonorizazio eta zaharberritze lanen ondorengo emaitza gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten. Honetaz gain, Herriko Antzokia Aldundiak antolatutako antzerki zirkuituan sartuta dago.**




Ekainean zehar, Herriko Aatzokira sarrera dohainekoa izango da.

Lehen zine emanaldia larunbat honetan izango da, hilak 11, eta emango den pelikula dinosaurioei buruzko "Parque Jurbieo" izango da. Haurrentzat, emanaldi berezia egongo da igandetan. Ordutegia honela geratuko da: larunbatetan 7etan eta gaueko 10,15etan, igandetan 4,30etan haurrentzat eta 10,15etan nagusientzat, astelehenetan 10,15etan eta astearteetan ere 10,15etan.

Hurrengo astebukaeran, hau da, hilaren 18ko astebukaeran "Philadelphia" filma eskainiko da eta haunen ernanaldian "El retorno de las brujas". Hil honetako azken astebukaerako filma, berriz, "En el nombre del padre" izango da. Haurrentzako saioan "El retorno de las brujas" pelikula errepikatuko da. Hauxe ekainari dagokionean. Uztailean eta abuztuan, oraindik konfirmaturik ez badago ere, aire libreko zineari helduko dio Ongarri Zine Klubak. Udako atsedenaldiaren ostean, irailean hasiko dira berriro Herriko Antzokiko zine emanaldiak. Egunero egongo da zinea, asteazkenetan ezik. Astearteetan sarrera merkexeagoa izango da, 350 pta, ikusleari eskainitako eguna izatea erabaki baitu Kultura Batzordeak. Gainontzeko egunetan sarrerak 450 pta. balioko ditu.

# ANTZERI(IA

## EKEKEI antzerki taldearen

## "HILTEGIA" antzeslana

**Ekainaren 1 Oean, ostirala, gaueko I Oetan.**

**HERRIKO ANTZOKIAN.**

**Prezioa:‘ 300 pta.**

**ANTOLATZAILEA:**
ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

**LAGUNTZAILEAK:** ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## 10 OSTIRALA

22,00 ANTZERKIA

Ekekei Antzerki Taldearen "Hiltegia" antzezlana.
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

10,30 DANTZA ESKALADA

✓ Kiroldegian

23,00 EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETA (Bizkortasun frogaa)

✓ Kiroldegian

## OSTEGUNA

20,00 NAHASTE BORRASTEA ANTOLATZEKO BILERA

✓ Kimetz elkartean.

## 11 LARU N BATA

10,30 EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETA (Kanporaketa)

✓ Kiroldegian
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

11,00 BIZIKLETA MARTXA

Arrasatera. (Intsurnisioaren eguna)
t/ Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Talde Antimilitarista

16,00 GARE-REN BILERA

,/ Kultur Etxean

18,30 EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETA (Finalak)

✓ Kiroldegian

19,00.22,15 ZINEA

"Parque Jurasico"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera doan

## 12 IGAN DEA

16,30.22,15 ZINEA

"Parque Jurasico"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera doan

## 13 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Parque Jurasico"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera doan

## ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Parque Jurasico"
✓ Herriko Antzokian
Sarrera doan

## txandak

**FARMAZIAK:**

11, larunbata: Yudego
12, igandea: Yudego
13, astelehena: Bidasolo
14, asteartea: Bidasolo
15, asteazkena: Bidasolo
16, osteguna: Bidasolo
17, ostirala: Bidasolo

**OKINDEGIA:**

12, igandea: **FOTERO**

TXURI BELTZ
San Franzisko 38

Murua mendiarar
ELGOIBAR
Ed4rdiapteout
~.eteli~ 947~
^7~4
9~ 4
Eopte~.4
GOZOTEGIX
Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

KAIA
KAFETEGIA ELGOIBAR
Kafetegia

Aue
DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIAK
Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

# 10. NAHASTE BORRASTE








**Ekainaren 21ean, asteartea, arratsaldeko 7etan (A maila)**
**arratsaldeko 7,30etan (B *maila*)**

**MAILAK:** **A maila: 10-14 urte bitartekoentzat.**
**B maila: 14 urtetik gorakoentzat.**

**IZENA EMATEKO:** **Kimetz Elkartea 74 07** **(Ekainaren 19a azken eguna)**

**OHAR RAK:**

- **Bizikleta froga egiteko derrigorrezkoa izango da kaskoa edo burukoa.**
- **Antolakuntza lanetan lagundu nahi dutenentzat batzarra ekainaren 16an arratsaldeko 3etan Kimetz elkartean.**
- **Irteerak: A maila: Kimetz Elkartean. B maila: Plaza Handian.**
- **Dorsalak hartzeko Kimetz elkartea 5:30-6:30 bitartean.**

**ANTOLATZAILEA: Kimetz Elkartea** **LAGUNTZAILEA: Elgoibarko Udala**


# Herrien Europaren Alde

# Europako Abertzaleekin

EA

eusko
alkartasuna




**Golf GTI. Ezin kendu burutik.**

**Autor Eibar, SA,** Otaola hiribiclea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR